Mondragon Unibertsitatea
Biblioteka

# Konpetentzia Digitalak

## Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.1. Nabigazioa, bilaketak eta informazioaren filtratzea, datuak eta eduki digitalak:

**1.1.4. PubMed datu-basea**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Informazioa eta datuen tratamendua.
Nabigazioa, bilaketak eta informazioaren filtratzea, datuak eta eduki digitalak

# PubMed datu-basea

CRUE REBIUN Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



- **MEDLINE/PubMed datu-basea ezagutzea**
- **Erreferentziak bilatzea**
- **Artikuluen testu osora sartzea**

# LABURPENA

- Ezagutu MEDLINE/PubMed datu-basea
  - Sartu datu-basera
- Bilatu zure lanaren gaiari buruzko artikuluak
  - Gako-hitzak erabiliz
  - Bilaketa aurreratua erabiliz
  - MeSH: gaikako bilaketa
- Mugatu zure bilaketa
- Emaitzak zure beharretara egokitu
- Sartu testu osora
- Gehiago jakiteko...

# PUBMED: DATU-BASE BIOMEDIKOA

PubMed National Library of Medicinek (AEB) ekoiztutako datu-basea da:

- MEDLINEtik datorren literatura biomedikoko 27 milioi erreferentzia inguru ditu
- Aldizkari biomedikoak eta liburu elektronikoak
- 1946tik gaur arte
- Aurkituko dituzuen artikuluak, funtsean, ingelesez dira
- Espezialitate mediko eta paramediko guztiak hartzen ditu barne (medikuntza, erizaintza, odontologia, albaitaritza, zientzia aurreklinikoak eta osasun-sistemak).

PubMed Biomedikuntzaren arloko datu-baserik garrantzitsuena da. Informazio eguneratuena erraz eskuratzeko moduan emango dizu.

**Baditu:** aldizkarietako artikuluak, liburuak, liburuen kapituluak, aipamenak, gutunak, editorialak, artikulu biografikoak.

**Ez ditu:** hitzaldiak, meeting-en abstractak, tesiak eta iragarkiak.

# SARTU DATU-BASEAN

Sartu PubMedera bilaketa-tresnaren edo Bibliotekaren webgunearen bidez.




Sartu widget honetatik PubMedeko atarira

# ZURE LANAREN GAIARI BURUZKO ARTIKULUAK BILATZEA

Gogoratu informazio bilaketa hasi baino lehen ondorengoa egin behar duzula:

1. Bilaketaren gaia definitu eta galdera formulatu
2. Gako hitzak, eta haien sinonimo eta ingelesezko itzulpenak bilatu
3. Definitu esparrua (kronologikoki, geografikoki, etab.)

Hainbeste informazioren artean, ondo definitu beharko duzu zure bilaketaren helburua

# 1 GAKO-HITZEN BIDEZKO BILAKETA

Gako-hitzen bilaketa bat egiten duzunean dokumentuaren edozein lekutan bilatzen ari zara (izenburuan, *abstract*-ean, etab.).




Sartu hitzak bilaketa-laukian, Googlen egingo zenukeen bezala

Gako-hitz bidezko bilaketa **erraza eta intuitiboa** da, Googlen erabili ohi duzun bilaketa mota.

Kontuan izan **gako-hitzekin egindako bilaketa ez dela oso zehatza**: bilatu dituzun hitzak dituzten **dokumentuak aurkituko dituzu**, baina baliteke **garrantzitsuak ez diren dokumentuak** agertzea (edo gai nagusia ez izatea).

# GAKO-HITZEN BIDEZKO BILAKETA

Beraz, hitz bidezko bilaketa ez da PubMeden bilatzeko modurik onena.
Zergatik?

- **Baliteke artikuluen egileek erabili dituzten terminoak eta zuk informazio bilaketa egiteko erabili dituzunak ezberdinak izatea.**

Bilaketa zehatzagoa egiteko, **hitzak izenburu eta *abstract* eremuetan** bilatzea gomendatzen dizugu. Horretarako, **bilaketa aurreratua** erabili beharko duzu.

# 2 BILAKETA AURRERATUA



Begiratu tutorial honi. Oso baliagarria izango zaizu zure bilaketei etekin handiagoa ateratzeko.

Bilaketa aurreratuak bilaketa-terminoak **eremu jakin batzuetan** (izenburua, *abstract*, etab.) **bilatzeko** eta operadore boolearrak erabiliz konbinatzeko aukera ematen dizu.

Bilaketa aurreratutik **historialera** ere sar zaitezke, hau da, azken bilaketen zerrendara. Hortik, operadore boolearrekin konbinatu ahal izango dituzu.






# MeSH: GAIKAKO BILAKETA

MeSH (Medical Subject Heading) **termino biomedikoen** hiztegi kontrolatu bat da; Medlineko artikuluen edukia indizatzeko balio du. Terminoak **ingelesez** daude eta urtero berrikusten dira.

Dokumentu bati gai bat esleitzeko, edukia adierazten duten terminoen zerrenda kontrolatuak erabiltzen dira.

Gaien araberako bilaketa **eraginkorragoa eta zehatzagoa** da gako-hitzezko bilaketa baino, dokumentuak berreskuratzeko aukera ematen baitu, egileak erabilitako terminologia kontuan hartu gabe.




Kontsultatu MeSH erabiliz artikuluak bilatzeko PubMeden tutorial hau.

# MeSH: GAIKAKO BILAKETA






**Gehiago ikasi nahi duzu?**

Bideo tutorial hau ikustea gomendatzen dizugu, MeSH erabiliz, PubMeden bilaketak nola egin jakiteko.

# MUGATU BILAKETA

PubMed-ek bilaketak egin ondoren iragazkiak aplikatzeko aukera ematen du. Iragazkiek bilaketa mugatzea ahalbidetzen dute, interesatzen zaizkizun erreferentziak zehaztuz eta egokiak ez direnak ezabatuz.

Iragazkietako batzuk honako hauek dira:

**Results by year:** kronologikoki mugatzeko

**Text availability**: Abstract, Free full text eta Full text

**Article types**: Clinical trial, Review...

**Publication dates**: kronologikoki mugatzeko

Kontsultatu iragazkiei buruzko PubMeden tutorial hau.

# MUGATU BILAKETA

Bilaketa amaitu ondoren, ezabatu iragazkiak, ondorengo bilaketetan gordeko dira bestela. *Reset all filters* botoia erabil dezakezu horretarako.

Iragazkiak ezkerreko ertzean aurkituko dituzu. *Additional filters* estekan klik eginda, eskuragarri dauden iragazki guztiak ikusi ahal izango dituzu.



# PERTSONALIZATU EMAITZAK

Pantailaren goiko aldean menu zabalgarri batzuk aurkituko dituzu, emaitzak pertsonalizatzeko eta hautatutako erreferentziak gorde, esportatu edo bidaltzeko:




## Format

Bistaratzeko formatuari egiten dio erreferentzia. *Summary* formatua lehenetsita dago eta *Abstract* formatuak artikuluaren laburpena ere erakusten du.

## Per page

Orri bakoitzean erakutsi beharreko emaitza-kopurua alda dezakezu.

## Sort by

Lehenetsita, emaitzak garrantziaren arabera ordenatuta agertzen dira (*Best match*), baina argitalpen-dataren arabera edo PubMeden sartutako dataren arabera ere ordenatu ditzakezu.

## Save / Email / Send to

Aukeratutako erreferentziak gorde, bidali edo esportatu ditzakezu.

# SARTU TESTU OSOA

Bilaketa egin eta interesatzen zaizkizun artikuluak hautatu ondoren, **testu osoa ikusi** dezakezun egiaztatzeko unea da.

Gogoratu *Full Text Links* botoiak artikuluaren testu osoa ikusteko aukera ematen duela, Mondragon Unibertsitateak aldizkaria kontratatuta edo harpidetuta badu.




Sarbide Irekian argitaratutako artikuluen testu osoa ere eskura dezakezu.




**Behar duzun dokumentua eskuratu ezin baduzu, jarri harremanetan [Bibliotekarekin](#) erosketa kudeatu ahal izateko.**

# GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu National Library of Medicinek PubMeden funtzionamenduari eta erabilerari buruz egin dituen tutorial hauei.

**Zalantzarik baduzu, galdetu bibliotekan!**

Mondragon Unibertsitatea

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure bibliotekan:



**Basque Culinary Center**
**Biblioteka**
Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteka.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**
**Biblioteka**
Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteka.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**
**Biblioteka**
Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteka.mgep@mondragon.edu

"Icon made by Baianat from www.flaticon.com"